



San Pedro egun handia izan da Asteasun, Leaburun eta Urkizun

JAIK ▶ Musika, herri kirolak,
jolasak, kalejirak eta meza
nagusiak izan dira protagonista

ASTEASU ▶ Gaur Jubilatuen Eguna
izango dute: hamaiketako,
bertsolariak, bazkaria, dantza... ▶ 4-5

AMAROS ▶

Bihartik igandera, jai eskaintza handia

Gaur, Antzerki Asteko
azken emanaldia
haurrentzat ▶ 2

TOLOSA ▶

Gipuzkoako Atletismo Txapelketan 10 domina

Tolosako neskak,
hirugarrenak ▶ 3

LEITZA ▶

Saharako 5 haur etorri dira uda pasatzera ▶ 7



Txikienek ederki gozatu zuten atzo Asteasuko San Pedro Eguna: jolaserako eskaintza handia izan zuten. NOELIA LATABURU



UDA HONETAN JANTZI EZAZU HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

GIZARTEA ▶

Bihar hasi eta igandera arte, eskaintza handia Amarozen

Antzerki Asteko azken antzezlanak eskainiko dute gaur haurrentzat: 'Ni arratoi'



Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du larunbatean Abeslari Lagunak abesbatzarekin. HITZA

JOAKIN ARTETXE ▶ ABESLARI LAGUNAK TALDEKO ZUZENDARIA

«Sekulako ikusmina piztu genuen abenduko barrikotean Amarozen»

Tolosako Musika Bandarekin batera eskainiko du berak zuzentzen duen abesbatzak emaldia Amarozen. Ez da estreinako aldia han ariko direna, lehenago, abenduan ere jardun zutelako Santo Tomas egunaren harira antolatuta zuten barrikotean. Harrera bikaina izan zuten orduan, eta gauza bera

espero du Joakin Artetxek larunbaterako ere.

Nondik norakoa izango da larunbateko saioa?

Kontzertu txikia prestatu dugu: lehenengo zatian bakarrik ariko gara zortzi bat kantu abesten, eta gero beste bi kantutako ditugu Musika Bandarekin batera.

Amarozko jaietan ez zarete orain arte sekula izan, ezta?

Jaietan ez, baina abenduan, Santo Tomas egunaren harira auzotarrek antolatuta zuten barrikotean izan ginen, eta sekulako ikusmina sortu genuen. Hortik etorri da jaietan ere aitzeko ideia.

Zer dela eta?

Edaten eta jaten genuen bitartean hasi ginen, kantuz, giroa alaitzen, eta jendeak atentzio handia jarri zigun. Ez dut sekula halakorik ikusi: haurrak ere isil-isilik zeuden guri begira. Orduan pentsatu zuten festetan etor gintezkeela.

Emanaldirik izaten al duzue bestela?

Lagunartean aritzen gara, eta ezkontzatan, hileta elizkizunetan, afaritan... konpromisoak ditugunean joaten gara, baina bestela ez. Laguntzarik ez dugu jasotzen, eta adinagatik eta ezin dugu batetik bestera aritu: gehienok 50-60 urte bitartekok gara. Kantuan egitea gustuko dugulako elkartzen gara.

Entseguak egiten al dituzue?

Garai bateko Leidor abesbatza geunden ahots grabeez osatu genuen Abeslari Lagunak taldea. Abuztuan izan ezik, urteko ostegun guztietan elkartzen gara taldea osatzen dugun 14 lagunok harrezkero. Batzuk Donostiako abesbatza ere aritzen dira, eta hango lagunekin hitzordu politik izaten ditugu urtean zehar; Amarozen gurekin jardungo dute. ◀

IRATXE ETXEBESTE

Bihar hasi eta igandea bitarte, ekitaldi eskaintza zabala egin dute auzotarrek Amarozko jaien baitan. Urteroko moduan, haurrei zuzendutako ekintzeekin emango diete festei hasiera, baina horiek ez dira jaietz gozatzeko aukera izango duten bakarrak, gazteekin eta helduekin pentsatuta ere askotariko ekintzak prestatu dituztelako antolatzaileek. Kultur ekitaldiek ere garrantzia dute.

Dagoeneko klasiko bilakatu den fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa da horietako bat. Gero eta auzotar gehiago dira lehiaketa horretan parte hartzen dutenak, eta, horrexegatik, sona handia ari da hartzen ekimena. Gazteei zuzendutako musika emanaldiek, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatutako txirrindularitza probak eta Tolosako Musika Bandak eta Abeslari Lagunak abesbatzak eskainiko duten kontzertuak jantziko dituzte, besteak beste, aurtengo jaiak.

Luis Mari Gartziazen eta Joakin Artetxeren zuzendaritzapean ariko dira Musika Banda eta Abeslari Lagunak taldea etzi, 20:00etan hasita, futbol zelaiaren parean. *Iruñatarra*, *Orfeo de los infiernos*-en zatiak, *Fiesta* eta *Jaialdia* eskainiko dituzte musikariek, eta *Agur jaunak*, *Jeiki jeiki*, *ABC*, *Goizeko izarra*, *Where you there*, *Iunabarra*, *Go dawn mooses* eta *Festara* abeslariak. Bukatzeko, denek elkarrekin Sorozabalen *Maite* zortzikoa eta Zapiarainen *Euskal Herriko* (Txanton Piperriko azken ereserkia) eskainiko dituzte Luis Mari Gartzia zuzendari dela. Antolatzaileek diote kontzertu ikusgarria izango dela.

Amarozko jaiak, ordea, ez dira hasiko VII. Antzerki Astea bukatu aurretik. Amaitzeko bidean da honezkerok Amarozko Artisauen Elkarrekin abian jarritako ekimena, eta, hain zuzen ere, gaur izango da antolatutako antzezlanetan azkena. Behi Bi's taldeak *Ni arratoi* lana eskainiko du haurrentzat 18:00etatik aurrera Amarozko auzo etxeko areto nagusian. Zabortegi batean bizi den arratoiak maskota izan nahi duela, horixe da istorio horren gakoak. Euskara hutsean egingo dute kontakizuna.

EGITARAUA ▶

Ekitaldi ugari antolatuta dituzte auzotarrek jaietarako:

BIHAR

16:00. Txoko txikin, haurrentzako jolasak.
16:30. Xurdir haur jolasak.
18:30. Sari banaketa haur jolasetan parte hartu duten guztien artean, eta ondoren txokolate jatea San Blas elkartean.
19:00. Txokolate jatea jubilatuentzat Beti Gazteak elkartean lokaletan.
20:00. Koadrilen arteko trikopoteoa.
23:00. Izotz taldea.

LARUNBATA

08:00. Garbiketa orokorra Txukun Txarra Zaharra taldearekin.
10:00. Amarozko txirrindulari proba, V. Pabxi Rodriguezen Oroimenezkoa Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta kadete mailako txirrindularientzat.
10:30. Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa.
10:30. Haur jolasak, puzgarriak, eskulanak... 12:30ak bitartean. Aurretik eta ondoren, Amarozko buruhandiak.
11:30. Ajoarriero erarako bakailao lehiaketa.
14:30. Lehiaketako emaitzak jakinaraziko dituzte, eta ondoren bazkaria.
15:30. Haur jolasak, puzgarriak, eskulanak... 18:30ak bitartean.
16:30. III. Mus Txapelketa auzokoentzat, San Blas elkarrekin antolatuta.
20:00. Tolosako Musika Banda eta Abeslari Lagunak abesbatza emanaldia.
22:00. Amarozko danborrada nagusia.
24:00. Disko-Top disko festa.
24:00. Karroza dantzaldia Zelaia anaiak taldearekin.

IGANDEA

08:00. Garbiketa orokorra Betikoak taldearekin.
08:30. Diana Tolosako txistulariekin.
09:00. Iurreko Andra Mari elizan Amarozko hildakoien aldeko meza.
10:30. Eskulan erakusketak Beti Gazteak elkartean.
12:00. Amarozko toberak: Amarozko dantza taldea.
13:30. Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketako emaitzak eta sari banaketa.
14:30. Auzo bazkaria.
18:30. Amarozko dantza taldearen emanaldia eta aurreksua.
20:00. Afari-merienda: sardin erreak, sagardoa...

Tolosako Udala

IRAGARKIA

LEHIAKETA

Gobernu Batzarrak, 2005eko ekainaren 13an, honako erabaki hau hartu zuen: San Frantzisko ibiltoiko argiteria publikoa hornitzea eta jartzeko baldintza-egiria onartzea.

- 1.- Helburua.- San Frantzisko ibiltoiko argiteria publikoa hornitzea eta jartzea.
- 2.- Hornitzeko aurrekontua 107.354,98 €.
- 3.- Dokumentazioa.- Baldintza agiriak eta beste Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Bulegoan daude.
- 4.- Behin-behineko bermea.- 2.147,10 euro.
- 5.- Behin betiko bermea.- 4.297,20 euro.
- 6.- Kontratuaren epea.- Hornidura 2005/11/1 baino lehen entregatu eta jartu behar da.
- 7.- Eskaintzak aurkezteko epea eta tokia.- Lehiaketan parte hartzeko dokumentazioa aurkezteko, Tolosako Udaletxeko Sarnera Erregistroan aurkeztu behar dira: plaza Zaharra 6 B. 2005eko uztailearen 7 eguna arte Ordutegia: 09:00-13:00.

Tolosan, 2005eko ekainaren 20an
ALKATEA

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agurrak. Gurasoak, seme-alabak, bikotekidea, lagun bereziren bat... agurtu nahi duzula? HITZAN argitaratzen diren agur guztiak aurkituko dituzu Interneten. Sartu web orrira; ikusiko duzu!

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Berazubi kiroldegia uztailean ez itxi

Berazubi polikiroldegia uztailean itxtekoak direla ari gara entzuten. Zabalzen ari den zurrumurru horren aurrean, ida-

tzi hau sinatzen dugunok gure haserre adierazi nahi diogu Tolosako Udalari, honako hauek esanez:

Tamalez, zurrumurru bat da esan behar duguna esateko informazio iturria; izan ere, funtzionarioak ere ez dira gauza egoeraren informazio zehatza emateko.

Dirudienez, instalazioa ixteko arrazoia hau da: gimnasioan erabiltzen den materiala konpontzea, gero instalazio berrietara eramateko. Hori hala bada, zergatik itxi behar dira instalazio guztiak? Hau da, zergatik kaltetu kiroldegiko gainontze-ko aktibitate guztiak?

Gimnasioa desegitea. Pen-

tsatu al duzue bestelako aukerarik ba ote dagoen?

Gure ustez, kirolaren, osasunaren eta denbora librearen gestioa politikaren atal bat da. Kirol proiektu erraldoiak posiboki baloratuz, udal politikariak eguneroko jardunean inplikazio handiagoa edukitzea gustatuko litzaiaguke.

Beharbada, erabaki hori zuzena da, baina iruditzen zaigu, besterik ez dakigularik, bidegabekeria bat besterik ez dela. Espero dugu arazoa bideratzen jakingo duzuela.

MIGUEL ANGEL URIBE ▶
BESTE EHUNDIK GORA
LAGUNEN IZENEAN
(TOLOSA)

ATLETISMOA ▶



Tolosa CFko atletismo taldeko kirolariak eta entrenatzaileak, Donostian, Gipuzkoako Txapelketan. HITZA

10 domina Tolosara

10 domina jantzi dituzte Tolosa CF atletismo taldekoak Gipuzkoako Txapelketan; nesken taldea hirugarren izan da

LEIRE MONTES

Merezitako sariekin itzuli da Donostiatik Tolosa CFko atletismo taldea. Bikain aritu ziren kirolariak Gipuzkoako Txapelketan, eta egindako lanak jaso du ordaina. Denera, 10 domin jantzi dituzte Tolosako atletek, horietako 3 urrezkoak. Gainera, taldeka hirugarren postuan saikatu dira neskak, eta seigarrenean mutilak.

Hori gutxi balitz, bi errekor berri ezarri dituzte: Iker Sukiak lehena, pisu jaurtiketan, 13,99 metroko jaurtiketarekin —aurrekoa Beni Sudupek zuen, 13,88 metroekin—, eta bigarrena Eva Zulaikak, Amaia Segurok, Oihane Vazquezek eta Amaia Jauregik osatutako taldeak, 4x400 metroko proban, 4'04"72 denborarekin aurreko errekorra 6 segundotan jaitsiz. Lehendabiziko urrezko domina haiek jantzi zuten eta, beraz, Gipuzkoako txapelkunak dira neskak.

Beste urrezko domina Amaia Segurok lortu zuen, 400 me-

tro hesietan. Tolosa CFko atletismo taldeko ordezkariak azaldu dutenez, «bere lehenengo parte-hartzea zen froga honetan, eta 1'07"58 ko denbora oso ona egin zuen. Ordurako bazuen 400 metroan Espainiako txapelketan parte hartzeko marka, eta proba honetan ere erraz lortu zuen beharrezko gutxienekoa».

Hirugarren urrea Amaia Jauregik jantzi zuen, 400 metroko proban. Bere markarik onena ezarri zuen, gainera: 59"52.

Beste hiru domina zilarrezkoak izan ziren. Miren Zubizarretak lortu zuen lehena xabalina jaurtiketan, «oraindik gazte dagoela zihurtatuz». Bestea Roberto Monteirok jantzi zuen, 3.000 metro oztopoetan bere denboraldiko marka hobetuz, 10'00" denborarekin. Hirugarrena Eli Ferrerok, Amaia Jauregik, Eva Zulaikak eta Maria Bonillak osatutako taldearentzat izan zen, 4x100 metroan, 51"33 denborarekin; «lasterketatik baina» egin zuten.

Beste lau dominak brontzez-

koak izan ziren. Iker Manso eta Oihane Vazquez 800 metroko proban izan ziren hirugarren, 2'00"01 eta 2'22"93 denborekin, hurrenez hurren. «Biak beren marketatik gertu geratu ziren, eta ziur gaude hurrengo lasterketan hobetzea lortuko dutela». Brontzezko beste bi dominak jaurtiketetan lortu zituzten Tolosa CFko atletek. Iker Sukiak, esan bezala, errekorra ezarri zuen. «Denok uste genuen alde handiagobobetuko zuela errekorra, baina hurrengo urtean berriro egingo duela esan du». Ibai Iglesiasek, bestalde, oso puntu garrantzitsuak lortu zituen taldearentzat mailu jaurtiketan; «ez zen oso gustura geratu, baina marka ona lortu zuen».

Domina horiez gain, beste hainbat atletek ere lan bikaina egin zuten Gipuzkoako Txapelketan, taldearentzat puntu asko lortuz. Beteranoak, esaterako, oso ondo aritu ziren: Ibon Artetxe laugarren izan zen jabalina jaurtiketan; proba guztietan hirugarren egin zuen,

eta azken jaurtiketan pasatu egiten zuten. Bere marka 48 metroetatik gorakoa izan zen. Beni Sudupe, bestalde, brontzetik zentimetro gutxitara geratu zen, Miren Zubizarreta pisu jaurtiketan bezelaxe. Juan Carlos Etxebestek 200 metroan bere denboraldiko markarik onena egin zuen. Berak eta Jozebe Ezkerro ekipoko animatzaileak 4x100 metroko proban parte hartu zuten, Sobrinorekin eta Jose Luis Gonzalezekin batera. Izaskun Zubeldiak 3.000 metroan egin zuen marka. Patxi Esnaolak beroaren eragina jasan zuen, baina gogor eutsi zion eta oso lan txukuna egin zuen. Ibai Agirrek, azkenik, saio gogorra egin zuen 400 metro hesietan.

Gazteak ere fin aritu ziren Gipuzkoako Txapelketan. Eva Zulaikak 100 eta 200 metroan ere parte hartu zuen, eta bere denboraldiko markak hobetu, gainera: «Argi utzi du berak uste baino forma hobea goan dagoela. Gainera, 4x400an egin zuen lasterketa, aurretik korritutakoak kontuan izanda, goraijantzekoa izan da». Jon Saizarrek 400 metroan bere marka hobetu zuen, Eli Ferrerok 100 metroan eta luzera jautsian, eta Leire Agirrezabalak oso 4. postu ona lortu zuen. Maria Bonillak triple jauzian ere puntu onak lortu zituen, eta Asier Landak 1.500 metroan ezin izan zuen gutxiagatik bere marka hobetu. 100 eta 4x100 metroan Mikel Munarrizen launtza ere «kontuan hartu behar» da. Lesioak zirela medio, Iker Albusuk eta Maialen Lopezek ezin izan zuten parte hartu, baina astebukaera guztia animatzen izan ziren.

Taldeko zuzendaritza pozik da: «Azkeneko urtetan lortu ez zena lortu dugu aurten, bai mutilen bai nesken taldea ateratzea. Gipuzkoako hirugarrenak dira neskak, eta ziur gaude mutilak ere hurrengo urtetan lortuko dutela podiumera igozteko. Zuzendaritzak eskertu nahi du ere Iban Gallego, Iker Manso, Peio Etxabe, Jaime Legarra eta Xabier Arratibel entrenatzaileak egiten ari diren lana».

ZINEMA ▶

Zinemazale Taldeak deituta, bilera gaur

Tolosako Zinemazale Taldeak deituta, bilera izango da gaur, 20:30ean, Kultur Etxean. Udaletxean aurkeztutako proposamenaren zabaltean —beste herrietara, erakundeetara, Interneten...— antolatuko dute bilera horretan, eta proposamenarekin Gipuzkoako Foru Aldundira jotzeko asmoa azalduko dute, era berean. «Herriar guztiak» gonbidatu dituzte.

UDALA ▶

Herriarren Partaidetzako Jardunaldiak

Uztailaren 8an eta 9an Herriarren Partaidetzako Jardunaldiak egingo dira udaldegian. «Udalerriko hainbat alorretan egun dauden beharren inguruan herriarrek beren iritzia eman dezaten» antolatu ditu Udalak jardunaldi hauek, eta udal planeamenduari berriak proposatu behar diren esparruan txertatutako daude. Parte hartzeko interesa dutenek Hirigintza departamentura jo dezakete jada, 943 69 74 50 telefono zenbakira deitu, edo mezua bidali partehartu@tolosakoudala.net helbide elektronikora. Halaber, www.tolosakoudala.net web orrian sartutako forora, edo aipatutako helbide elektronikora bidal daitezke iritzirik eta iradokizunak.

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.
Umeak zaintzeko. Bi neska gazte udan umeak zaintzeko eskaintzen dira. Telefona: 686 54 14 09.

SAN PEDRO JAIAK ▶

Herriko zaindariaren omenez

San Pedro Eguna izan zuten atzo Asteasun, Leaburun eta Urkizun; hiruetan ere meza nagusiak, musika, kalejirak, haurrentzako jolasak eta herri kirolak izan ziren protagonista, besteak beste



Leaburu. San Pedro patrioiaren omenez eginko meza nagusia. I. I.



Urkizu. Trikilariek alaituta, bazkaria egin zuten tabernan. K. LEBARU



Asteasu. Umeeek primeran igaro zuten. K. LEBARU



Leaburu. Toka bapeltzeko une bat. HITZA

IRIGO TERRADILLOS NOELIA LATABURU

San Joan joan eta iritsi da San Pedro; horrela izan zen atzo eskualdeko hainbat herritan. Asteasun, Leaburun eta Urkizun, herriko zaindariaren eguna izaki, egun gutxi zehar jai giroan mugatuta ibili ziren herritarak.

Asteasun, txistularien diadak esanarazi zituen herritarak, festen egun handiena izagarrri. San Pedro Eguna, hain zuzen, horien musikari meza nagusiak jarraitu zion Elizmendian auzotan. Amaitzerakoan, prest zuten herritarrek hamaitzako opariora, eliza atarian; eta horiek gutxi dastatzen zirela bitartean, herriko gazte-otoak pilota neurketak jokatu zituzten. Eguraldia lagun, norgehiagoka horiek ikusmiria handia sortu zuten goiko auzo-ara hurbildu zirengana. Bien bitartean, Asteasuko plazan bertan, haurrentzako zein gazte-otoak ederki asko igaro zuten goiza berarentzat prestatutako puzgarrari eta besteak haur-jokoekin. Arratsaldean ere izan zuten aukera jolasean aritzeko. Bestalde, herriko musikariek kaleak alaitzeko ardura izan zuten arratsaldean, herria barrena eginko kalejira. Musika eta dantza zuten Asteasun, izan ere, gasaldean, mezikar donuak nagusitu ziren, Mariachi Real Azteca taldearen eskutik.



Asteasu. Gazteek pilota norgehiagoka jokatu zuten frontoian. I. I.

JAKO INGELESA UDA

- FIRST PRESTAKUNTZA
- BESTE MAILAK
- TALDE TXIKIAK
- HASIERA: UZTAILAK 4 ASTELEHENA

matematika, natur...
Sendotzeko edo hurrengo kurtsoa prestatzeko

P.Gorosabel 2 1º (Trianguloan) **TOLOSA** Telf. 943-652372

EGITARAU ▶

ASTEASU GAUR

Jubilatuaren Eguna.
10:30. Meza. Ondoren, Aitzondo elkartean herriko jubilatuentzat hamaitzako.
12:30. Telleria eta Zaberio bertsoariak eta Kapre eta Zaharra trikilarien saioa herriko plazan.
14:30. Jubilatuen bazkaria.
19:30. Asteasuko X. Dantza Solteko Txapelketa (14 urtetik gorakoentzat).
23:00. Trakets musika taldearen emanaldia.

BIHAR

Koadrilen eguna.
Egurdian. Koadrilen arteko bazkaria.
18:00. Haurrentzat zezen koki eta poneyak Arratsaldean, Urolako trikilariei koadria.
21:00. Herri alfaria. Ondoren trikilariekin erromeria.

Leaburun ere izan zuten zer ikusi eta zer gozatu. Meza nagusiaren ondoren, herriko dantzarien saioa ikusteko aukera paregabekoa izan zuten. Emanaldiaren ostean, herriko ostutuan hamaitzako legea egin zuten herritarrek. Toka bapeltzeren unea izan zen jarrarian. Hamabost lagunek hartu zuten parte eta bi sailkapen ezberdindu zituzten, herrikoak eta orokorrak. Herriko hoberenak Jose Antonio Arresegor, Imanol Alfonso eta Fernando Lopezegi izan ziren, hurrenez hurren. Lehenengoak trofeoa eta lortutako diruaren %20a eman zituzten; bigarrenak, bereziki, Mahala baserriko produktua sortu eta lortutakoaren %15a. Eta hirugarrenak, azkenik, txanpan botilla bat. Talde orokorrenak Jose Antonio Arresegor nagusitu zen; bigarren Manuel Ugarte eta hirugarren Jose Maria Lasa sailkatu ziren. Hauen kasuan, txapelkunak trofeoa eta diruaren %45a, bigarrenak mahala baserriko produktua sortu eta lortutakoaren %20a eta hirugarrenak ardoa eta txanpan botilla bana. Arratsaldean, haurren gozamenarako jolasak eta txokolatea antolatu zituzten.


Urkizun, San Pedro Egunari kanpaleki eman zuten hasiera. Ohioko meza nagusiaren ondoren, hamaitzako egin zuten. Egurdi partean, bertze auzoko tabernan mahai inguruan bildu ziren bazkari legea egiteko, trikilariei eta bertsoariak alaituta. Igandea bitarte jarraituko dute herri hauetan festak. Izango da, beraz, ondo igarotzeko atxakirik gurean.



Leaburu. Mezaaren ostean dantzariak aritu ziren plazan. K. LEBARU



Asteasu. Hamaitzakoan bildu ziren elizatik irtezerakoan. I. TERRELLUS



Zaren bezalakoak zarela, orain **gehiago** dugu zuretzat.

Kutxan oraindik eta inbertsio-akera gehiago eskaintzen ari gara. Orain, **Inbertsio-Fondo KUTXADINAMIKOAK** aurkezten dizugu. **KutxaGest-eko gure adituek modu aktiboan kudeatutako** hiru fondo berri dira, eta heburu nagusi bat dute: zuretzako emaitza onenak eskuratzeko.

Inbertsio-Fondo KUTXADINAMIKOAK

- ➔ Mundu osoko merkatuean inbertitutako zure dirua, unean uneko **aukera gutxiak** etekina ateratu diezazkizun.
- ➔ 3 aukera dituzu hauteszeko moduan, **errentagarritasunari** eta onartzen duzun **arriku kontrolatuari** dagokienez.
- ➔ **Et dirua zure esku** izango duzue, nahi duzuen.

Zenbat inbertitu nahi duzun eta gehien interesatzen zaizun Fondo-mota zein den besterik ez duzu erabaki behar; Guek egingo dugu gainerako guztia.

KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK

www.kutxa.net



zure diruaren balio erantsia

IRURA ▶ III. GARAGARDO AZOKA

Herriko Ikastolaren aldeko garagardo azoka bihar hasiko da

Igandera bitarte bapo edan eta jateko aukera izango da; herri guztiak hartzen du parte ekitaldiaren antolaketan

IMANOL GARCIA

Bihar hasi eta igandera arte, III. Garagardo Azoka antolatuta dute Iruran. 18:00etan irekiko da eta 01:00ak arte garagardo edan eta azokan prestatutako menua dastatzeko aukera izango dute Irurako frontoira joaten direnek. Azoka, aurreko urtean bezala, Irurako Ikastolaren alde izango da. «Lehenengo urtean *Egunkaria*-ren alde antolatuta genuen garagardoaren azoka», azaldu dio Josune Aiestaran Ikastolako zuzendaria HITZARI. «Iruran horrelakoetan asko mugitzen gara eta arrakasta izan zuten. Horrela, hurrengo urtean azoka errepikatzea otu zitzaigun, herriko Ikastolari laguntza emateko».

Herri guztiak bustitzen da azokaren antolakuntzan. «Ikastolako gurasoak, irakasleak, guraso ohiak, herriko gazteak, aitona-amonak, elkarrekin, Udala... Irura guztiak hartzen du parte eta ez lanean bakarrik, azokara ere etortzen da bere gastua egitera», azaltzen du Josune Aiestaranek. «Herriko Ikastolak sekulako garrantzia du, herri bizi bat izateko ezinbestekoa baita Irurako haurrak bertan ikastea eta bizia egitea», dio Marimi Ugalde Irurako alkateak. «Horregatik, herriaren behar nagusia da Ikastola egokitzea sortzen dihozen beharretara». Egun 104 ikasle daude eta datorren urtean beste 11 gehituko dira.

Herriaren parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen dute Aiestaranek eta Ugaldek horrelako ekitaldi bat aurrera ateratzeko. Besteak beste, Jose Luis Olanok egiten duen lana aipatzen dute: «Berak izaten du buruan azoka guztia, muntaia nola egin... bera da koordinatzailea». Azokaren kartela Ikastolako guraso batek egin du, Joxean Apeztegiak.

Edateko eta jateko nahiko

Aurtengoan hamalau garagardo dastatzeko aukera izango da: lau arruntak, bat botilari eta bederatziz bereziak. Garagardoak mota guztietako izango dira: horiak, tostatuak, beltzak,



Marimi Ugalde eta Josune Aiestaran, azokaren kartelarekin. I. GARCIA

ESKAINNTZA ▶

MENUA

- ▶ Frankfurt salbitxa.
- ▶ Bratwurst salbitxa.
- ▶ Irurako txistorra.
- ▶ Irurako gulak.
- ▶ Ukondoa.

Postrea.

- ▶ Gazta eta irasagarra.
- ▶ Euskal pastela.
- ▶ Irurako pastelboak.

GARAGARDOAK

Arruntak.

- ▶ Foster's.
- ▶ San Miguel Especial.
- ▶ Nostrum.
- ▶ San Miguel 0,0.

txuria eta alkoholik gabekoa. Eta jatorria ere anitza da, mundu leku ezberdinetan ekoiztutakoak izango direlako. Horrelako azoka guztietan gertatzen den bezala, pitxar bat eskuan izanik gerturatu beharra dago edariak eskatzera. Pitxarrak bertan eskuratu ahaliko dira euro baten truke.

Jateko aukera ezberdinak izango dira, herriko produktuak tartean. Ohiko salbitxa eta ukondoez gain, Irurako gu-

Bereziak.

- ▶ Kronenbourg 1664.
- ▶ John Smith.
- ▶ Grimbergen Blonde.
- ▶ Grimbergen Dubbel.
- ▶ Maes.
- ▶ Newcastle.
- ▶ Beamish.
- ▶ Brugs.
- ▶ Mort Subite.
- Botila.**
- ▶ Judas.

BESTELAKOAK

- ▶ Pitxarra.
- ▶ Freskagarriak.
- ▶ Kafea.

lak eta txistorra jateko aukera izango da. Gainera, herriko jakek arrakasta izaten dute.

Giroari dagokionez, nola ez, herriko seme bat arduratuko da: DJ Bull. Berak jarriko du musika, 500 bezerorentzat egokituko den frontoian. Bihar arratsaldean, beraz, dena prest egongo da beste garagardo azoka bati ekiteko. Antolatzaileek, beren aldetik, biziki gonbidatzen dituzte eskualdeko herritarrik Irurara joatera.

EKONOMIA ▶



Luminiako langileek atzo egindako protestaldiaren une bat. HITZA

Luminiako langileek protestaldia burutu dute

Enpresa itxi ondoren, gerenteari «zor duena ordaintzea» eskatzen diote

IMANOL GARCIA

Asteasun kokatuta dagoen Luminia enpresako zenbait langileek protestaldia burutu zuten atzo, Tolosako Hotel Oriaren inguruan. Protestaldian «zor dutena ordaintzea» eskatzen zuten eta enpresako gerenteari aurkako oihuak egin zituzten. «Urriaren gerenteari esan zigun gauzak gaizki zihoazela eta enpresa itxi egingo zela, baina ordaindu beharrekoak ordainduko zizkigula», azaldu dio HITZARI langileetako batek. «Gu harritu egin ginen, lana bazegoelako. Gero, baina, ordainketarik ez du egin. Urtarriletik kalean gaude eta dirurik ez dagoela

esanez, ez digu ez kitapenik ez ezer ordaindu». Hamalau langile gelditu dira lanik gabe, «gehienak 30 eta 35 urtetan Luminian lan egindakoak».

Langileek haserre daude, azaltzen dutenez, Luminia produktuekin gerenteari dirua egiten ari delako: «Orain Luminia produktua Kataluniako Bufalo enpresak ateratzen du, beraz, gerenteak dirua egiten jarraitzen du eta guri ez digu ordaintzen zor duguna». Hotel Oriaren inguruan egin zuten protestaldia, bertan bilduta zeudelako Galur enpresako bazkideak, horietako asko Luminia enpresako bazkideak direnak, langileek azaldu dutenez.

IKAZTEGIETA ▶ MUSIKA

Jeshmar musika taldearen emanaldia

Ikaztegieta Udalak eta Kutxak antolatuta, kiroldegiko gimnasioan kontzertua bat izango da bihar, 17:00etan. Jeshmar musika taldearen emanaldia ikusi eta entzuteko aukera izango dute bertara joaten direnek. Heldu zein gazteentzat antolatutako kontzertua izango da.

IBARRA ▶

III. Langostino Moto Festako txartelak salgai

Asteburuan izango den III. Langostino Moto Festako txartelak salgai daude. Salmenta mugatua da, eta gosaria, hamaiketako, bazkaria, afaria eta opari poltsa sartuko dira. Aurretik 22 euro dira (Euskadiko Kutxako 3035 0141 84 1410023232 kontu korrontean) eta bestela 25. Informaziorako: 658 751 591 (Tximas), 670 417 915 (Moski) eta 605 706 982 (Kepa).

VILLABONA ▶

Iratxo Amarozen irabazi du futbol areto torneo

Iratxo Amarozen taldeak lortu zuen Olaederra kiroldegiko VII. Areto Futbol Torneooko garaipena. 3 eta 2 irabazi zion Alegiako Bibalabirjen taldeari. Hirugarren postua Irurako Gazte Asanbladak lortu zuen, 5 eta 2 Anoetako Itzuli Taberna A taldeari irabazi ondoren. Finaleko jokalarionenaren saria Iratxo Amarozen taldeko atezaina den Iker Berrak eskuratu zuen.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Sahara-Euskal Herria: 20 orduko bidaia elkartasunerantz

Beste behin ere, seigarren urtez, Saharako bost haur etorri dira kanpamenduetatik Leitzako familian uda igarotzera



Nekatuta aillatu ziren. Hemengo familiak bertaratu ziren ahala, irrifartxoak ikusi ziren. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

20 orduko bidaia egin dute, Aljeriako lurretako Saharako Herriko errefuxiatuen kanpamenduetatik hasita, Leitzara aillatu arte. Bost haur dira, bi neskatu eta hiru mutiko; Mariam, Salek eta Hoceine iaz ere hemen izan ziren; Jatrik eta Nahjubak beren lehen ateraldia dute.

Herenegun atera ziren Tindufetik hegazkin militar batean «bazkalorduan», atzo aillatuta koan egiten zituzten hitz eska-

sen arabera, eta Oran-en eskala egin ondoren, Irufeko No-aiing aireportuan atzoko 7:30 aldera hartu zuten lurra. Tartean, nora ezean, esperoan, paperak egiten... orduak esperoan eginak. Han, paperak moldatu, bakoitza bere helmugara banatu, eta autobusez, 10:30 alderako Leitzara. Hemengoe-kin batera etorri ziren, eskual-dera beste hamaika neska-mutiko ere.

«Etxean», hemengo familiak ezagunak dira batzutan: lehen-

dabiziko agurrak egin ondoren, zuzenean futbolera joan zirenak izan ziren; ezezagunak ere bai, ordea: aurreneko aldia dutenentzat, gogorxeago egin zitzaizen ailaera, irrifarra, negarra... arrotza, baina ez hotza.

Basamortuko berotik ihesi, indar berritzera datoz, udarako. Sahararekin elkartasuna taldekoek egin zuten jaialdiko kantuak hala zioen: «Sahara-Euskal Herria/bat bera egarria/bertor aro berria/ezpainetan irria».

EUSKARA ▶

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriak banatuko ditu

Banaketa ekitaldia Leitzako udaletxeko batzar aretoan egingen dute, bihar 20:00etan

J. ASTIBIA

Bihar egingen du Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia, Leitzako udaletxeko batzar aretoan, 20:00etatik aurrera.

Bertara gonbidatuta daude, Leitzako eta Aresoko hainbat eta hainbat eragile, elkarte, erakunde, talde, dendari eta industria tiktiko ordezkariak: 50 baino gehiago dena. Eta guztiak euskararen normalizazioaren alde, iazko urtean urratsak eman dituztenak eta hurrengorako ere konpromiso berriak hartu dituztenak.

Aurreko bi hilabetetan, Kontseiluko ordezkaria, banaka-banaka denekin bildu da eta elkarrekin, bakoitzak egin dituen aurrerapenak eta bidean aurkitutako zailtasunak aztertu zituzte. Orain, bigarren urtez, bakoitzak dagokion Ziurtagiria jasoko du, euskararen alde egin dutenaren berme gisa, edo lehengo mantenduz, edo berria jasoz. Tartean badira, bospa-sei eragile berri ere.

Ekitaldira, herritar oro gonbidatuta dagoela ere adierazi zuten atzo, bestalde.

LEITZA ▶

Jon Rekondo Nafarroako aizkolarien finalean da

J. ASTIBIA

Jon Rekondok Bigarren mailako Nafarroako Aizkolari Txapelketako finalerako txartela eskuratu berri du, kanporaketa saioan denborarik hoberena berak egin eta gero.

10 aizkolari aritu ziren lanean, bina kana erdiko eta 60 ontzako enbor bana moztu zituzten. Leitzarrak, 8:17ko denbora behar izan zuen, hurrengoari ia minutu bateko aldea aterata lan bikaina eginenez, zalantzarik gabeko garapena lortu zuen. Honekin, 5 lagun dira finalera igaro direnak: Belarra, Jon Telletxea, Etxeberria eta Amillano. Finaleko data oraindik zehaztekoa omen dago, hala ere.

Santi Olano ere han zen lehian, baina 8. lekuan gelditu zen, sailkatzerik lortu gabe.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ ESKOLAKO FUTBOLA

Komando tripontxi, irabazle

J. Astibia ▶ Eskolako futbol txapelketako irabaztuna Komando tripontxi taldea izan da aurtengoan, Beti mozkor-i 5 eta 2ko aldeaz irabazi baitzion larunbat iluntzean jokatu zuten finala. Ikusle mordoan bildu zelarik, koadrilen arteko partidu polita egin zuten biek hala biek ere. Txapela, kopa, eta garaikurrerrez gain, axuria, txanpaina eta ardoa ere jaso zituzten sarritzat. 2. arentzat eta 3. eta 4. lekuan, Meta ziri eta Steawa-k ere beren sariak izan zituzten, jokalaria hoberenak eta berriek bezalaxe. J. ASTIBIA





Harpidedunei banatua ▶ 2005eko ekainaren 30a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. Jubilatuen eguna: 10:30ean meza; ondoren Aitzondo elkartearen herriko jubilatuentzat hamaiketakoa; 12:30ean Telleria eta Zeberio bertsolariek eta Xapre eta Zaharra trikitilarien saioa herriko plazan; 14:30ean jubilatuen bazkaria; 19:30ean X. Dantza Solteko Txapelketa; 23:00etan Trakets taldea.

Tolosa. Amarozko 7. Antzerki Astearen barruan, *Ni arratoi* obra Behi bi's taldearen eskutik, 22:00etan auzo etxean.

Tolosa. Eduardo Mokorua udal musika eskolan matrikula epea zabalik dago. Gaur da azken eguna. 9:30etik 13:30era.

Tolosa. Tolosa CFk binakako 37. Pala Txapelketa antolatatu du Berazubiko frontoian. Izen-ematea: bulegoetan 17:00etatik 20:00etara (Berazubi estadiumean, 943 67 17 49) edo 607 447 677 telefonoan (Pello).

Tolosa. Udako ekintzak antolatatu dituzte 16-18 urteko gazteentzat: paintball hilarren 20an eta karts-era irteera 22an. Izen-ematea, Kultur Etxean.

Tolosa. Xabier Galizaren akuarelak daude ikusgai Poxpolin enmarkazio dendan (San Frantzisko kalea). Paisaiak dira gehienak.

Tolosa. Uztailaren 8an eta 9an Herriarren Partaidetzako Jardunaldiak izango dira udal etxean, tolosarrek iritzia emateko hainbat alorretan dauden beharren inguruan. Parte hartzeko 943 69 74 50 telefonora edo partehartu@tolosakoudala.net et postara zuzendu.

Tolosa. Zinemazeleen bilera Kultur Etxean 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea 20. 943 67 30 13.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM101)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
19:00. Errepikapena.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Jon Ander Etxabe tolosarra, Portalet-eko mendateetik igarotzean. L. M.



Marraskilo zikloturista taldeko (tropei buruan) kide asko izan ziren. L. M.

Hezurrak puskatzen?

TOLOSALDEA ▶ Eskualdeko txirrindulari askok hartu dute parte, aurten ere, Quebrantahuesos proba ospetsuan, Pirinioetan

LEIRE MONTES

Hau da hau afizioa», zioen Valentziako txirrindulari batek Portalet mendatean gora, ekainaren 18an, euskaldunon uholdeari begira. Sona handiko lasterketa da Quebrantahuesos, eta Euskal Herriko txoko askotatik joandako txirrindulariek —2.500dik gora aurten Quebrantahuesos; 5.600 inguru ibilbide motza ere kontuan hartuta — eta zaleek betetzen dituzte ibilbidearen bazterrak. Tolosaldeak ere izan du, beste behin, ordezkari Pirinioetan. Primeran aritu dira denak.

David Urbieta asteasuarra (6:10) eta Imanol Nazabal irurarra (6:10) izan dira Tolosaldeko lehenak. Beste asko eta asko iritsi ziren atzetik: Jon Ander Etxabe tolosarra (6:17), Txemi Saizar Buta tolosarra (6:30), Jon Artutxa tolosarra (6:33), Iñaki Pakea ibartarra (6:33), Ketxus Lopez ibartarra (6:34), Jon Estensoro tolosarra (6:53), Mikel Artola tolosarra



Ibartar askok ere (ezkerrean, mailot urdinarekin) hartu zuen parte proban; irudian, Portalet-en. LEIRE MONTES

(7:01), Iker Artola anoetarra (7:10), Koldo Arsuaga tolosarra (7:20), Serafin Tena eta Patxi Goia tolosarrak, Tejeria eta Koldo Alijostes ibartarrak... Eta abar luze bat.

Bi tandemek ere parte hartu zuten lasterketan: Joxean Zubelzu eta Txomin Dominguez ibartarrak osatutakoa, eta Martin Leunda eta Izaskun Lizeaga senar-emazteena.

«Iaz baino gogorragoa izan zen proba», txirrindularien esanetan. Baina beroari aurre egin eta txukun aritu ziren denak, zaleen animoen indarrez eta ingurun apartaz gozatuz.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Unai Aguirreurreta Tobar
(Alegia). Gaur 8 urte. Zorionak osaba Iñaki, Oihana eta familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezleak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoiztetara:
Arabako etorbidea, 5 behe - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

MARTEGO TOUR-A MEDITERRANEOAN EDO KANARIAR ISLETAN AMATUKO DA!!

tropela.net
WWW.TROPELA.NET

hitza